

[orri nagusia](#)

[web mapa](#)

Bilatu:

- [ARTEA](#)
- [BERTSOTAN](#)
- [MUSIKA](#)
- [ESZENA](#)
- [IKUS-ENTZUN](#)
- LITERATURA
- [BESTELAKOAK](#)

LITERATURA

Abdela Taia idazle marokoarraren "L'Armée du Salut" eleberriaren euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenak kalean

2007-05-08 1 12:49:57



[Alberdania](#)

argitaletxeak Abdela Taia idazle marokoarraren L'Armée du Salut eleberriaren euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenak kaleratu ditu *Salbazioko Armada* (itzultzailea: Patxi Zubizarreta) eta *El Ejército de Salvación* (itzultzailea: Gerardo Markuleta) titulupean.

Abdela Taia idazlea (Sale, Maroko, 1973) Parisen bizi da. Taiaren beste liburu batzuk honako hauek dira: *Mon Maroc* (2000) eta *Le rouge du tarbouche* (2005).

Jaio zen etxeak, Marokon, hiru logela zituen: bat aitarentzat, bestea anaia nagusiarentzat, eta hirugarrenean, amarekin eta bere zazpi anai-arreba gazteagoekin lo egiten zuen Abdelak. Familiaren bizitzan bero sentzuala sumatzen da. Hurrek dena dakite gurasoen amodio oldarrei buruz. Lotsaz, ordea, ez dute horretaz hitz egiten. Abdela nerabe denean anaia nagusiak Tangerrera darama txangoan. Bere identitate sexuala argitzen dion bidaia

da hori. Anaia nagusiarenganako pasioa zapuztuta geratuko da hura neska batez maitemintzen denean. Hogei urte beteak ditu eta Genevara doa bere ikasketak jarraitzera. Bere ametsetako Europa ezagutuko du azkenean, bere ametsetako liburuak, zinema, askatasuna. Bakardadea aurkitzen du, ordea, etxeoengandik urrun. Erakarmen handiko mutil gaztea da, eta erabili egiten du dohain hori.

Abdela Taiak gure garaiko gazte baten ibilbidea kontatzen digu. Marokoko tradizioaren eta Mendebaldeko kulturaren arteko oreka-puntu egokia bilatzea da ibilbide horren gakoa, ezinegonaren eta aurrera ateratzeko nahiaren artekoa. Hipokresiak salatzen ditu liburuan; gordin jokatzen du batzuetan, samur besteetan, xalo eta gaizto, jostakin eta hunkigarri aldi berean.

Aipatu behar da arratsaldeko 19:00etan, eta Gehitu elkarteak antolatutarik, hitzaldia egingo duela Abdela Taiak, Dr. Camino liburutegian *Homosexualitatea eta Magreb* gaiaz.

Alberdaniak bidalita



Bidali zure albistea

T. T. T.

- [OEPLI erakundeak Mariasun Landa aukeratu du IBBYk \(International Board on books for Young People\) antolatzen duen 2006ko Hans Christian Andersen Sarietarako hautagai. Haur Literaturako Nobel Sari txikiak bezala ezagunak diren sari hauek bi urtean behin ematen dira 1956tik.](#)
- [Poesiari kale?](#)
[izango da aurtengo leloa: Mikelazulokoek \(parte hartzaileen ezinbesteko elkarlanarekin\) ez diote poesiari kale egingo, eta egun poesia oinarri duten hainbat sormen lan aterako dituzte kalera.](#)
- [Bilbaoarte Fundazioan, maiatzaren 15etik 17ra bitartean, Clemente Padinek poesia esperimentalari buruzko mintegia egingo du.](#)
- [Alberdania argitaletxeak Abdela Taia idazle marokoraren *L'Armée du Salut* eleberriaren euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenak biltzen dituzten liburuen aurkezpen ekitaldia egin du gaur.](#)
- [Gaur goizean, Donostiako Udal Liburutegian, Pablo Sastre, Mikel Arrizabalaga \(Elkar Fundazioa\) eta Xabier Mendigurenek \(editorea\) *Gauzen presentzia* \(Elkar\) izeneko lanaren aurkezpena egin dute.](#)
- [Txus Aranburu musikariak eta Mikel Peruarena idazleak *Edan ase arte* izeneko ikuskizun berria prestatu dute.](#)
- [Badira aste bi Beñat Sarasola idazle donostiarrak *Kaxa huts bat* \(Susa\) argitaratu zuenetik. Egileak berak esan digunez, jarrera moralizante batetik urrundu nahi izan du.](#)
- [Arrakalak](#)
[ikuskizunarekin hasitako bidean, bihotz bakartien klubak poemak kantu bihurtu eta hausnarrerako bazka eskaintzera etorri da berriz ere.](#)
- [Izaera berezia izango du hirugarren edizio honek, euskal emakumeek egindako literaturari emango baitzaio garrantzia.](#)
- [Bideak, aldapak eta bihurguneak \(Elkar\) gazte literaturako liburua aurkeztu du gaur goizean Juan Luis Zabala idazle azkoitiarrak.](#)

[Nor gara gu](#)

[Babesleak](#)

[Erabiltzaileak](#)

[azkenak](#)

nontzeberri@nontzeberri.com